

19-09-01az geroztik aplikazioan egingo diren aldaketak

Informazio gehiago behar baduzu, Profesionalentzako Laguntza Zerbitzura jo.

BERTSIOAREN BERRIKUNTZAK

Profesional guztientzat

Aukera berria “Prozeduren grabaketetan”

Bulego judizialetan erabiltzen diren aplikazioetan aldaketak egiten ari gara, seinalamenduen grabazio-sistema berrira egokitzeko (JustizialkusBi); aldaketa hauek Barruti Judizialetan gradualki ezarriko dira.

Sistema berri horren bitartez, JustiziaSipe-etik ikusi ahal izango dira ordezkatu/defendatutako partehartzaileen auzien prozeduren grabazioak.

JustiziaSip-eko menuan dagoeneko badago “Prozeduren grabaketa” aukera, baina grabaketak ez dira eskuragarri egongo Barruti Judizial ezberdinetan sistema berria erabiltzen hasi arte.

Jaiegunen egutegiaren kudeaketa bakarra

Bulego judizialtako aplikazioei (JustiziaBat) eta profesionalen aplikazioei (JustiziaSip) eragiten dieten jaiegun guztien kudeaketa berrikusi eta berrantolatu da.

Berrantolaketan hurrengo irizpideetan oinarrituta dago:

- Jaiegunen kudeaketa zentralizatu egingo da.
- Jaiegunen egutegia bakarra izango da JustiziaBat eta JustiziaSip-eko erabiltzaleentzat.
- JustiziaBat eta JustiziaSip-eko erabiltzaile guztiek (Prokuradoreen Aretoetako langileak barne), egutegia kontsultatzeko aukera izango dute.
- Ardura izango duten zerbitzu/norbanakoek, EAE, probintzia eta barruti judizialtako jaiegunak kudeatzeko aukera izango dute.
- Jaiegunen kudeaketaren zerbitzu/norbanako arduradunek JustiziaBat-etik arituko dira, Idazkari Koordinatzaileekin adostutakoaren arabera.
- Kudeaketa eredu berri hau dela eta, JustiziaBat eta JustiziaSip-en orain arte jaiegunak kudeatzeko zegoen aukerak kendu dira.

Egiaztapen Kode Seguru formatu berria (EKS)

Justizia Batetik igortzen diren dokumentuetako sinadura elektronikoetan arduradunari eta organoari dagokien Egiaztapen Kode Seguruaren formatua aldatu da, Justizia Elektronikoaren Estatuko Batzorde Teknikoak ezarritako formatuarekin bat egin dezan.

Dokumentuak EKS bidez egiaztatzeke hurrengo loturara joan:

- <https://www.justizia.eus/dokumentuak-egiaztatzea>